#Sugebizi, sugeei buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa handitu nahi duen egitasmoa martxan jarri du Aranzadik Twitter sarean.

Aranzadi pone en marcha #sugebizi en twitter. Una campaña de ciencia ciudadana que tiene como objetivo concienciar sobre la importancia de las serpientes.

Herritarren parte-hartzea Intsektuen hotel handi bat eta hazi-bonbak sortzen "Escaralimanía. Actúa Gipuzkoa" ekimenaren barruan.

Participación ciudadana en la colocación de un gran hotel de insectos y bombas de semillas dentro del proyecto "Escaralimanía. Actúa Gipuzkoa".

Urdaibain jaio ziren kantauri isurialdeko lehen arrano arrantzaleak, mende bat baino gehiagotan, eta munduan ezagutzen den lehen albinoa.

Nacen en Urdaibai las primeras águilas pescadoras de la cornisa cantábrica en más de un siglo y la primera albina que se conoce en el mundo.

Lekunberrin dago ikusgai "Aralar, Kirikuren begirada" erakusketa, Astiz Irujo Fundazioaren egoitza den Antonea Etxean. Aralarko paisaian azken 100 urteetan izandako aldaketak agerian uzteko ibilbide bat eskaintzen du.

Lekunberri acoge la exposición "Aralar, la mirada de Kiriku" en Casa Antonea sede de la Fundación Astiz Irujo. Se realiza un recorrido sobre el cambio en el paisaje de Aralar en los últimos 100 años.

Irulegiko Burdin Aroko herrixka baskoien eraikuntzen eta aztarnen aurkezpena.

Presentación de los restos y construcciones del poblado vascón de la Edad de Hierro de Irulegi.

ARALAR, KIRIKUREN BEGIRADA" ERAKUSKETA LEKUNBERRIN

Arduradunak: Suberri Matelo, Maite Errarte, Fermin Leizaola, Ion Garin, Joseba Garmendia.
Babesa: Astiz-Irujo Fundazioa, Nafarroako Gorbernua, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Araizko Udala, Cecerna Garalur, Ondare Kultur Elkartea, Mitxausenea Kulturetxea

Ekainaren 26ean, *Aralar, Kirikuren begirada* erakusketa inauguratu zen Astiz-Irujo Fundazioaren Antonea Etxean (Lekunberri). Fundazioak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak komisariatutako erakusketa da honakoa.

Erakusketaren helburu nagusia Aralarren historia bere alderdi guztietatik bisitariei hurbiltzea da. XIX. mendearen amaieratik paisaia, geologia eta biodibertsitatea ikertzeko egiten ziren espedizio aitzindari haietatik hasten da ibilbidea. Ondoren, Aralarko paisaiaren azken 100 urteetako aldaketari buruzko errepasoa egiten da. Paisaiaren erabileraren eta ustiapenaren garrantzia eta ikazkinen, egurgileen, artzainen eta abeltzainen lanetara hurbiltzen da erakusketa. Fermin Leizaolak, bertako Ondare Kultur Taldeak eta inguruko hainbat partikularrek utzitako material etnografikoak daude ikusgai guzti hau lagunduz.

Kiriku ugatzaren begirada mugarik gabeko begirada da, airetik behatzen duelako Aralarko mendilerroa. Kiriku 2011. Urtean mendilerro honetan finkatu zenetik Aralarko biodibertsitatearen ikono bihurtu zen ugatza dugu eta hori dela eta da erakusketa honen ikurra. Kirikuren begiradak Aralar mendilerroaren iraganaz, etorkizunaz nahiz klima aldaketaz hausnartzeko balio digu.

Inaugurazioa eta erakusketaren bista desberdinak.

ARGITALPENAK / PUBLICACIONES

"500 AÑOS DE PRESENCIA VASCA EN EL ATLÁNTICO NORTE"

Miren Egaña.
Aranzadi Etnografia Bilduma. II. Liburukia

Aranzadi Etnografia Bilduma alor horretako ikerketak biltzeko asmoz osatutako argitalpen seriea da. 2021. urtean saileko kidea den Miren Egaña Goya (Donostia, 1946) ikertzailea izan da bilduma honen bigarren liburukiaren idazlea, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin gauzatu ahal izan den. Miren Egaña hizkuntzalaria eta euskararen irakasle ohia da, eta euskalgintzan, toponimian zehazki, loturiko ikerketa aferetan ibilbide luzea du.

Liburu berri honek *500 años de presencia vasca en el Atlántico Norte* du izenburu eta Egañak 30 urteetan zehar eginiko ikerkuntza biltzen du. Hain zuzen ere, euskal marinelek Canadaren ekialdean, Islandian eta Spitzbergenen, hau da Ipar Atlantikoan, utzitako aztarnak biltzen dira bertan. Abiapuntutzat hartu ditu: artxibategiak, itsas-gida liburuak, mapak... Toponimiaz gain, Euskal Kartografia eskola, itsas-gida liburugile euskaldunak, eta Ternuako hilarriak aztertu ditu.

Miren Egaña bere liburua eskuetan. Noticias de Gipuzkoa

"OROZKOKO ERROTARRI-HARROBIAK. LAS CANTERAS MOLERAS DE OROZKO"

Javi Castro eta Iñaki Garcia Uribe

2021eko urriaren 22an Javier Castro eta Iñaki Garcia Uribe ikerlariek osaturiko *Orozkoko Errotarri-harrobiak. Las Canteras Moleras de Orozko* liburua aurkeztu zen, Orozkoko Donibane aretoan. Javier Castro eta Iñaki Garcia Uribe Etnografia Saileko kideak dira eta ibilbide luzea dute errotarriei nahiz bestelako egitura eta ebidentzia tradizionalen ikerkuntzari dagokionez. Liburu honek 2010. urtean ekindako ikerketaren bilkura osatzen du eta Atlas Meulières nazioarteko proiektuaren parte da. Liburua euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzita dago, eta Orozkoko Udalak editatu du, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin.

ARALAR, KIRIKUREN BEGIRADA LA MIRADA DE KIRIKU"

Monográficas Michelena 29

Michelena Artes Gráficas inprentaren "Mono-gráficas Michelena" bildumako 29. zenbakia "Aralar, Kirikuren begirada La mirada de Kiriku" liburuak osatu du. Liburu hau ekainean Astiz-Irujo Fundazioaren egoitza den Antonea Etxean inauguratu zen izen berbereko erakusketaren harira osatu da, haren katalogo modura. Erakusketaren eduki grafiko nahiz materiala biltzen dituen izaera dibulgatiboko argitalpena da.

ELKANO EUSKAL PLANISFERIOA 43º

Aranzadi Zientzia Elkartea, Astronomia Saila

ARALAR, KIRIKUREN BEGIRADA / LA MIRADA DE KIRIKU

Exposición: Lekunberri, Larraun, Nafarroa 2021

Testuak / Textos: Fermin Leizaola [et al.]

GURE FAUNARI ETA FLORARI BEGIRA: URUMEA BAILARAKO NATURA ETA AHOZKO ONDAREA: EUSKARA, EZAGUTZA, SINESMENAK... I. liburukia

Eñaut Agirre Goia, Iñaki Sanz-Azkue

ARGITALPEN GUZTIAK WEBGUNEAN KONTSULTATU DITZAKEZU:
www.aranzadi.eus

LIBURU ESKAERAK / SOLICITUDES DE LIBROS:
aranzadi@aranzadi.eus